

Literatura →

Eta irakurleari liburuak

Alex Gurrutxaga

Eta irakurleari liburuak? Ez al dio ba edozein liburu —galde zenezake— zerbait esaten irakurleari? Bai horixe, baina ez dute liburu guztiak tratu berdina egiten harekin. Cortazarrek zioen *bestseller*-ak irakurleari «espero duena» eskaintzen diola. Aldiz, orain asko ez dela, Saizarbitoriak aldarrikatu du errazegi esaten dugula zerbait aspergarri egiten zaigula, eta literatura irakurleak «esfortzua» egin behar duela. Amaia Iturbideren azken lanak maila oneko literatura eskaintzen dio irakurleari, eta esfortzua eskatzen.

Narrazioa eta saiakera landu baditu ere, Iturbide poeta gisa nabarmendu da. 1986an argitaratu zuen lehen poemategia, eta orduetik hona kritika espezializatuak onartu duen ibilbide poetiko pertsonala du egina. *Kartografiaren eta mikrobio narratiboen artean* lanean 2006tik 2013ra bitartean idatzitako 45 ipuin bildu ditu, batzuk dagoeneko *Maiatz* aldizkarian argitaratuak. Estiloa da, idazlearen hitzetan, hainbeste ipuin batzeko arrazioa, «uste ez badugu ere, une

edo aro bakoitzean ezberdin idazten» baitugu.

Iturbideren estiloan espazioek —kartografiak— garrantzia handia dute, haien inguruan bilbatzen baitira gertaerak eta gogoeak. Liburuko lehen atalean Bilbo ageri zaigu, urruneko giro exotikoak bigarrean, beste batean gertuko herriak; espazio horiek birsortzerakoan nabarmetzen da gehien Iturbideren luma. Deskribapen luze eta hanpatuak egiten ditu, mintzaldian pausak egin eta narratzailea behatzaile bihurtuz etengabe. Pintzelkada impresionistak ematen ditu, surrealismo ukituak eta, oro har, egiten dituz naturaren ikusmiratik sortzen diren margotze literario zertzeladaz beteak: «Detailez zizelkatutako/paradisua pintzelatuan barrena/galduz goaz», zioen *Itzulbidea*-ko (1992) poema batean.

Efektu estetiko hauemateko sentsibilitate handia du idazleak, eta sentikortasun horrek aldenik alden gurutzatzen du bere literatura. Dena dago estetiko ki hautemana izateko prest: «inguruko mendiak, erreka, eliza eta hainbat eta hainbat xehetasun, denak erne berriko abarrak eta zerrate-

gietako txirbilak bezala han-hemenka sakabanatuta eta nire oroimenean zizelkatuta sutegietako burdinazko pieza forjatua bezain gori eta adierazkor» (241. orrialdea). Jarrera horretatik sortzen dira deskribapen arrandi-tsuak eta adjektiboen ugaritasunak dakarren barrokismoa; narroa da konparazio modernisten eta metaforen erabilera, zentrala sugestioaren indarra, aberatsa lexikoa.

Esanguratsua dira fantasia eta errealismo magiko ukituak ere, esaterako, lehen atalean. Hamahiru ipuin daude bertan, eta sekuentziak osatutako nobela



'KARTOGRAFIEN ETA MIKROBIO NARRATIBOEN ARTEAN'

- **Egilea:** Amaia Iturbide.
- **Argitaletxea:** Maiatz.

gisa ere irakur daiteke. Ipuinotako protagonista Itziar Oiz da, Iturbideren *alter ego* modukoa, baina eite fantasiatsua eta magiko batek inguratzen du. Ipuin narratiboenak, berriz, *Xehetasunak bahiturik* eta *Baldintza arrotzetan* atalek dirak dira, eta, nolabait ere, *Bidaiarik luzeenak* liburuak (2005) markatutako lerroa jarraitzen dute; kontakizun biziagoak dira, 3. pertsonan narrotuak asko, eta zuzenago heltzen diote trama bati.

Maila oneko narrazioak dira oro har, eta idazlearen begirada erabat pertsonala dute. Atal ederak dira, esaterako, *Harrizko liburutik* ipuinaren hasiera, *Armintza herria locus amoenus* gisa margotzen duena; *Laute-gauak* ipuina, zeinak, hizkuntza joria medio, Ekialdeko giro iradokizua birsortzen duen; edo *Legamia, neurria, kolore zuria*, Manuel Lasarteren figura dakarkiguna.

Iturbideren kartografiaren mikrobio narratiboei jarraitzeak ahalgaita egitea eskatzen dio irakurleari, irakurketa pausatuta eta sakonera behartzen du. Kokxa hori gaitzitzen gero, mundu sentorsial aberatsak aurkituko ditu



'Z'

- **Egilea:** Mikel Antza.
- **Argitaratzailea:** Ataramiñe.

«Esku artean duzun antzerki obra hau, zinez, ez da antzerki obra bat», dio liburuaren kontrazaleko testuak. Antzezlanaren forma hartzen du irakurlea jarrerara bat hartzera bultzatzeko, testuaren aurrean bere burua definitzeko. Eta testuak espeztzearen «izugarrikeria» du hizpide.



'BASARRI. ZARAUZKO BERRIAK. 1931-1936'

- **Egilea:** Joxemari Iriondo.
- **Argitaratzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia.

Inazio Eizmendi Manterola *Basarri*-k 1931 eta 1936 urteen artean idatzi eta *Euzkadi* nahiz *El Día*-n argitaratutako hainbat kronika bildu ditu Joxemari Iriondok Auspoa bilduman kaleratutako lan honetan. Bertsolari eta idazlearen testu guztietan azaltzen da Zarautz.



'ESTELLES EUSKARAZ'

- **Egilea:** Vicent Andres Estelles.
- **Apailatzailea:** Hector Arnau.
- **Itzultzailea:** Gerardo Markuleta.
- **Argitaratzailea:** Bostezo.

Vicent Andres Estelles idazle valentziarrak (1924-1993) idatzitako poemen antologia lana argitaratu dute euskaraz eta katalanez. Bilduman idazlearen literatur ibilbide osoko lanak jaso dituzte.

↓ **Haur eta gazte literatura**

Poetaren igarkizunak

Imanol Mercero

Batzuetan, liburu on baten alde lotsa gabe egin behar da, esku artean dugun obra honekin arituko garen bezala, arrazioak emateko gai garen bitartean. Espero dezagun zuk ere bat egitea emango diren argudioekin, irakurle, eta hemendik aurrera liburu honen alde aritzea, dagoeneko ez bazara aritu.

Igarkizun bilduma hau orain dela dozeina bat urte kaleratu zuten lehenengoz, eta berrargitaratu egin dute Klis-klasikoak bildumaren barruan urtetan agortuta egon ondoren.

Klis-klasikoak, gogora dezagun, ez da bilduma soil bat, Galtzagorri elkartearen egitasmo bat ere bada, ezinbestekotzat markatutako obren argitalpen eta berrargitalpenak bultzatzea helburutzat duena, argitaletxeen konplizitatearekin eta administrazioaren laguntzarekin. *Tom Sawyer*, *Pinotxo* edota *Txin fantasma* bezalako obra lustre askoak argitaratu

dira orain arte bilduma honetan eta ulertzekoa da, hor argitaratze hutsa, jada aitorten bat dela.

Badago eta zer aitortua. Gutenbergetik hona ez dira dozeina bat izango euskaraz sortu eta argitaratu diren igarkizun bildumak. Guztietatik lau nabarmenak dira kalitate eta kopuruan: Etxanizen 1995eko *Igarkizunak*, Txilikuren 2001eko *Axa mila zilarra*, Igerabideren 2003ko *Mintzo naiz isilik*, eta esku artean dugun Olasoren *Auskalo!* Aurreko hirurak ez bezala agortuta egoiteak ematen zion obra honi halako mito kutsu bat —agian, merezimenduz goiti jarria— berrargitalpen honekin desagertu egin dena.

Liburuak 375 igarkizunekin osatuta dator; mardula da, beraz. Soilik, Etxanizen gainditzen du, 500ekin.

Igarkizunen artean ordena jakinik ez dago. Ideia bat egitearren, lehen hirurak jarriko ditugu: (1) «Ttipi-ttapa dator, ttipi-ttapa doa, ehun txankaren gainean egiten du txangoa»; (2) «Esnatzen dene-

an jartzen da sutan, herensuge bat ote du barruan?» (3) «Jarriko nautse, jarriko, belarri-belarrarian, eta hasiko dira, hasiko, hizkirimarian». Ez zaie loturarik sumatzen, ezta? Ohiko gabezia bilduma liburuetan.

Gaika sailkatutako igarkizun liburuak—Igerabiderenean, kasurako—liburu hobearren itxura hartzen dute, bai bederen antolakuntza estimatzen dugunon arte-



'AUSKALO! IGARKIZUN ETA AHO-KORAPILOAK'

- **Egilea:** Xabier Olaso.
- **Ilustratzailea:** Agurtzane Villate.
- **Argitaletxea:** Pamiela.

an, baina Olasok erronka beste modu batera antolatuta izanark liburuaren erabiltzaileari kaosaren xarma erakusteko aukera ematen dio, amaieran dagoen aurkibidean igarkizun guztiak hiru modutara antolatuta ageri direlako: agerpen ordenaren arabera, alfabetikoki eta gaika. Hortaz, —asmatuko zenuen igarkizunak, ezta?— lehenaren emaitza «ehunzangoa» da, bigarrena «sumendia» eta hirugarrena «telefonoa». Gaika *animalia*, *natura* eta *etxeko gauzak* atalean aurkitzen direlarik, hurrenez hurren.

Badute, gainera, ezaugarri bat igarkizun hauek berezi egiten dituen: hitzaurrean aitortzen zaigun, guzti-guztiak egileak berak asmatuak dira. Nork eta Olasok, errimaren eta erritmoaren poeta jostalariak.

Adinari dagokionez, ez dute mugarik erakusten, txikienekin hasi eta nagusienekin jarraiturik, erronka hauei aurre egiteko aurrerik duen edonorentzat dira egoki.